

Euskara ikusgarri astebetuz Miarritzen

IRAILAREN 16AN HASI eta 20ra bitartean 50 hitzordu izango dira Miarritzeko (Lapurdi) hainbat txokotan *Mintzalasai* astearen barruan. Helburua argi dute antolatzaileek: euskara bistara ekarri behar da eta erakarri izan behar du miarritzarrentzat.

Bigarren edizio honetan, Miarritzeko Herriko Etxea eta 20 elkarte ari dira antolaketa lanetan, 100 laguntzaile dituzte eta 150 partaide. Antolatuzaileen esanetan, familia transmisioa apal eta hizkuntz paisaia nagusiki frantsesa den herrian, 50 ekitaldi inguru prestatu dituzte. Mota guztietako ekintzetan gozatu ahal izango da euskaraz: pailazoak, helduentzako TELP tailerrak eta bisita pedagogikoak, sukalde lanak, Itsasoaren Museora bisita, skate saioak, dantzak, kabaret afaria...



Euskaltzaleak Sorluzen

Irailaren 28an TopaEguna egingo dute Sorluzen (Gipuzkoa). Antolatzaileak Deba bailarako euskara elkarteak eta Euskaltzaleen Topagunea izango dira. Euskaltzale guztien ekarpena eskertu eta aldarrikatu nahi dute egun osoko ekitaldien bidez. Euskaldun oro gonbidatu dute festara.

Bahea

Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) aurkeztutakoan esanak:

“Elebitasun individual orekatua eta gizarte-elebitasun orekatua sortuz eta denboran zehar mantenduz bakarrik lortu daiteke, besteak beste, gizarte osoari bermatzea hizkuntza hautua askatasun osoz eta eremu guztietan egitea, eta, bide batez, hizkuntzarengatik inor inoiz inon baztertzen ez duen gizarte bat eraikitzea (...). EAEko bi hizkuntza ofizialen arteko oreka iraunkorra —ez soilik legala— lortzeko helburu izaten jarraitzen du. Bizikidetzeta eta gizarte kohesioa indartzeko lanabesa da elebitasun sozial orekatua. Euskarak bere biziraupena bermaturik du bizpahiru belaunalditarako, baina ezin gauza bera esan bere bizi-indarrak. Jokoan daukaguna euskararen bizi-indarra da, denona den ondarea denon hizkuntza izatera iristea, euskara bigarren edo hirugarren mailako hizkuntza izatera ez kondenatzea”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Akordioak, kohesioa, gardentasuna eta koherentzia

JOAN DEN ASTEAN EAJ eta PSEren arteko akordioa egin da publiko, eta dirudienez ekonomiarekin eta jendartearekin lotura estua du. Dena den, itxaron beharko da zein neurri zehatz jasotzen dituen. Sozio-ekonomian etorkizuna izango omen duen akordioa izanik, hasteko, bada zerbait gaizki egin dutena eta kohesio politiko-sozialaren kontra doana: ez dira kontuan eduki sentsibilitate politiko guztiak eta are gutxiago sindikatuak eta mugimendu sozialak. Politikariak egoeraren jaun eta jabe direla uste dute eta ahaztu dira benetako protagonistak herri sektoreak eta langileak direla, mugimendu politiko, sozial eta sindikaletan ordezkatuak. Hauek baztertzeak porroteira darama edozein akordio. Eta historia errepikatu egiten da.

Jendartean arrakasta izan nahi duen edozein akordio eta itunek gardentasuna behar du. Baina gardentasunik ere ez da izan kasu honetan, lerro hauek idazterakoan akordioaren eranskinak ezezagunak baitira

oraindik. Zergatik ez dira publiko egin? Zer ezkutatu nahi dute?

Amaitzeko, akordioak edo itunak sinatzen dituztenek koherente izan behar dute. Akordioak eta itunak, askotan, sinatzaileen hauteskunde propaganda politiko hutsa dira. Akordio hori aurrera ateratzeko benetako zerga erreforma behar da, hura posible egingo luketen funtsak lortzeko. Koherente izango dira eta enpresarien eta profesionalen zerga-ihesa ahalbide-tzen duen ingeniartza fiskal guztia ezabatuko dute? Bai EAJk baita PSEk ere, badakite zerga-ihesaren hobiak non dauden. Eta oso ondo dakite zein enpresa eta profesionalak erabiltzen duten ingeniartza hori. Politikari horiek koherente balira, “haien kontra” jo behar lukete. Inolako azalpenik eman beharrik gabe! Egingo dute?

Juan Mari Arregi

